

Begira, begira, eskurik gabe!

Ana Galarraga Aiestaran
Elhuyar

Aurkeztu berri den software bati esker, eskuak erabili gabe teklatuarekin bezain azkar idatz daiteke ordenagailuan. Horretarako, begiradaren laguntza besterik ez da behar.

LEHENDIK ERE BADAUDE, EZINDUENTZAKO EDO ESKUAK BESTE ZEREGINETARAKO BEHAR DITUZTENENTZAKO, teklatuaren eginkizuna betetzen duten tresna bereziak. Horietako batzuk begien mugimenduan oinarritzen dira; kamera baten bidez, begien mugimendua jasotzen dute, eta programa informatikoak aurrean dagoen hiztegitik bistaz aukeratutako letra pantailan azalarazten du. Baina horrela idaztea oso motela eta nekoso da, eta ez da inolaz ere lortzen teklatuarekin hartzen den abiadurarekin idaztea.



ARTXIBOKC

Orain, berriz, Britainia Handiko Cambridge Unibertsitateko ikertzaileek sistema azkartzeko era asmatu dute. Haiek ere begien mugimenduan oinarritzen dira idatzi nahi diren letrak aukeratzeko, baina berria da hurrengo letra zein izan daitekeen asmatzen duela. Hain zuzen ere, idatzi nahi denari aurre hartzeko prestatu dute softwarea. Horrela, idazteko era horretan trebatutako edozeinek teklatu arruntarekin bezain azkar eta eroso idaztea lor dezake.

Probabilitate-kalkulua

Sistemak Dasher du izena, eta letra baten ondorengoa zein izango den

aurreikusteko gaitasuna du. Horretarako, aurrekoaren atzetik joateko letra bakoitzak duen probabilitatea kalkulatu du. Hasieran aukeratutako letra pantailaren ezkerrean azaltzen da, eta eskuinaldean, berriz, alfabeto osoa dago. Baina hurrengo izateko probabilitate handiena duten letrak besteak baino nabarmenago azaltzen dira, eta, beraz, errazago aukeratu dira. Izan ere, letra probableen gainontzekoek baino toki gehiago hartzen dute, eta oso erraz ikusten dira. Begirada bigarren tokirako aukeratu den letrara zuzentzen den heinean, are eta toki gehiago hartzen du letra horrek, eta besteak ezkututzen ditu.



ARTXIBOKOA

Programa informatikoak begiradaren bidez aukeratutako letrak azalarazten ditu.

Oso sistema intuitiboa da, hurrengo letra aukeratu orduko jarraian datozenak eta hitz osoa, baita esaldi osoa ere, zein izan daitekeen kalkulatu hasten baita. Berehala azaltzen dira horiek nabarmenduta, gainontzekoak baino leku gehiago hartuz pantailaren eskuinaldean, eta ezkeraldera pasatzeko prest. Horri esker, letraz letra idatzi beharrean, ia konturatu gabe osatzen dira esaldiak. Adibidez, erabiltzaileak aukeratu duen lehenengo letra 'k' bada, eta, horren ondoren nabarmenago azaldu diren bokalen artean, 'a' eta gero 'i' letrei zuzendu badie begirada, prest egongo dira, esate baterako, 'kaia' eta 'kaixo' hitzak, eta beste letra-konbinazioek baino toki gehiago hartuko dute pantailan.

Horretaz gain, Dasherrek erabiltzailearen zaletasunak eta lehenetasunak zein diren ikasteko ahalmena du. Izan ere, maiztasun handienarekin idazten dituen hitzak zein diren kontuan hartu eta beste guztiak baino lehenago nabarmentzen ditu.

Letra probableen gainontzekoek baino toki gehiago hartzen dutenez, errazago aukeratu dira.



DASHER

10 bider gehiago irauten duten bateriak

PC World aldizkariak argitaratu duenez, erregai gisa metanola erabiltzen duen bateria asmatu du MTI Fuel Cells enpresak. Bateria berria oso aproposa izan daiteke telefono mugikorrentzako eta ordenagailu eramangarrientzako, haien autonomia hamarkoiztu baitezake. Bateriak karta baten tamaina du eta karga gabe geratzen denean, kartutxo txiki bat aldatu behar zaio. Lehenengoak gaur egungo litiozko bateriak kargatzeko osagarriak izango dira eta 2004an merkaturatuko dituzte. Motorola, Hitachi eta Toshiba etxeak ere antzeko prototipoak prestatzen ari dira; Casio, berriz, ohikoaren tamaina duten metanolezko bateriak merkaturatu nahi du bi urte barru.



ARTXIBOKOA

“Dasher programari esker, teklatuarekin bezain azkar idatz daiteke”

Hizkuntzak aukeran

Softwareak hainbat hizkuntzaren artean hautatzeko aukera ematen du, eta hizkuntza horien idazteko arauak kontuan hartzen ditu. Adibidez, gaztelania aukeratu bada, 'q' letraren ondoren 'u' azaltzen da berehala. Esan beharra dago oraingo ez dutela euskara kontuan hartu, eta, seguruenik, puska batean ez da gure hizkuntzara egokitutako programa kaleratuko. Aldiz, ingeleseko, alemaneko, finlandierako, suedierako, danierako

eta norvegierako hiztegiak dituzten programak eginak daude, eta prestatzen ari dira txinerakoa eta japonierakoa ere.

Bai txinerak bai japonierak ehunka karaktere dituzte, eta, beraz, ez daude hizkuntza horietan idazteko aukera ematen duten teklatu asko. Dasherrek, ordea, ez du mugarik karaktere-kopuruan, eta, karaktere-segida arruntena nabarmentzen duenez, guztiz egokia izan daiteke hizkuntza horietan idazteko. Orain Japoniako hiragana idazteko bereziki prestatutako prototipoa probatzen ari dira.

Egileen esanean, begien mugimendua jarraituz idazten duten orain arteko softwareekin minutuko 15 hitz idatz daitezke gehienez, eta kontu handia eduki behar da nahi ez diren letrak ez aukeratzeko eta akatsak saihesteko. Dasherrekin, berriz, erabiltzailea erraz iristen da minutuko 25 hitz idaztera.

Argi dago software hori oso egokia dela eskuekin idazteko ezinduta dauden pertsonentzat, baina aproposa da ordenagailu eramangarrientzat eta eskuko ordenagailu txikientzat ere, horiek ez baitute teklaturik.

Probatu nahi izanez gero, hurrengo hau da helbidea:

<http://www.inference.phy.cam.ac.uk/dasher/Download.html>